

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da zure bezeroa? Zein ezaugarri ditu?



Gure produktua egunerokoan ordenagailua erabiltzera ohituta dauden pertsonei doa zuzenduta. Bai ikasle, bai langile... izanik, egunerokoan dokumentu, fitxategi, argazki, pdf-ak... inprimatzeko beharra duten pertsonentzat.

Gure bezeroek, praktikotasuna eta erraztasuna bilatzen dutela identifika dezakegu. Gure produktua beraientzat errentagarria izatea. Horregatik ezinbestekoa izango da gure produktuaren kalitate ahalik eta onena bermatzea.

Gure produktua kalitatekoa izango denez, prezioari dagokionez esan beharra dago prezio altuak ordaintzeko prest egongo direla gure bezeroak. Ordenagailu arrunt bat nahi dutenek, prezio merkeago batean lor dezakete ordenagailua, baina gure produktu berritzailea eskuratu nahi dutenek, benetan behar dutelako erosiko dute, eta beraz, prezioa ez da oztopo bat izango beraien bidean.

Bestalde, gure produktuaren nondik norakoak zeintzuk diren ikusi ondoren gure merkatua adinaren arabera segmentuta egon behar dela argi ikusi dugu. Gure bezeroak izango diren artean 3 adin-talde ezberdin bereizi ditugu, hain zuzen ere. Alde batetik, 17-26 urtekoak; bestetik, 26-39 urte bitartekoak, eta azkenik 40-60 urte bitartekoak. Gure produktua ordenagailu-inprimagailu bat izanik, argi dugu 17-60 urte bitarteetan ez dauden pertsonentzat ez dela horren erabilgarria izango, beraz gure proposamena ez dago beraientzat bideratuta.



17-26



27-39



40-60

Baina gatozen harira. Gure merkatuan arreta jarri ezker, ikus daiteke adin-talde bakoitzak baduela ezaugarrirenbat zeinak baieztatuko duen gure produktua beraientzat komenigarria dela.

Lehenik eta behin, 17-26 urte bitarteko pertsonak normalean ikasleak izaten dira; graduak, masterrak, goi-mailako heziketak... egiten ari diren pertsonak, ordenagailua egunero erabiltzera ohituak dauden pertsonak (ikasteko). 26-39 urte bitartekoak normalean, dagoeneko lan munduan murgilduago dauden pertsonak izaten dira, autonomoago ibiltzen direnak, helduak izan arren, teknologia berriekien oso eroso moldatzen direnak. Eta azkenik, 40-60 urte bitartekoak, bizitza egonkorrago bat duten helduak izan ohi dira, familia edo beraien bizitza bideratuago dutenak, eta noski erosteko-ahalmen gehiago duten pertsonak.